



## Nazioaren neurrira



KARMELO LANDA  
HISTORIALARIA

Zorionekoak gara euskaldunok. Euskal Herria, Baskonia, gure nazioa, mundu osoaren aurrean agertzen da, historian izan den eta gaur egun den modukoa. *Imago Vasconiae*. Barne irudia eta besteen aurrekoa. Zer gara, nolakoak gara, non gaude, noiztik eta noiz arte. Gure kartografia historikoak gailurra lortu du eta nazioartean ere agertu da, Jose Mari Esparza eta Ramon Oleaga ikerlarien lan bikainari esker, Joseba Agirreazkuenaga eta Iñaki Lopez Luzuriagakoaren arartekotasuna medio. Atlas da gure nortasun agiria orain.

Badugu irudia orain, eta badugu izena aspaldian. Gutxienez XVI. mendetik gara izenez *Euskal Herria*, gure literaturan horrela agertu gintuztelako orduan, bai Araban (Juan Perez Lazarraga), bai Lapurdin (Joanes Leizarraga). Baina, eta izana? Noiz izango gara nazio libre antolatua, instituzio, estatu, errepublika?

Politika atzeratuta dabil Euskal Herrian. Zer dela eta? Mende hartu gaituzte XVIII. mendetik Iparrean, eta XIX. mendetik, Hegoan. Zazpiak bat garela aldarri egin zuten XIX. mendean Abadiak eta Xahok, baina ondoren ez gara gai izan jauzi egiteko, eta erdizka hiruretan lotzen gaituzte gaur, zazpiak bat egiteko bide egokirik hartu gabe.

Ez dugu gaur politika burujaberik. Begira Euskal Autonomi Erkidegoa (EAE) deitu horretara eta ikusi alderdi abertzaleen artean dabilen lehia gordina. EAJk nahiago du PSOerek ezkondu

Euskaldunon kaltea ez dator hutsean eskuin muturretik, baina, Frantziatik bertatik dator, edo Espainiatik. Hori ikasten ez dugun bitartean ez dugu Euskal Herri librerik izango

eta haren harrokeria espainiar zalea gobernuan partekatu, EH Bildurekin akordio abertzalea adostu baino. Nafarroan, berriz, euskararen kaltetan gobernatzen du PSOEk, bi alderdi abertzaleen gobernatzeko *bonus* hori merke lortuta. Eta Iparraldean EH Baik ez du erreparorik ikusi Fronte Popular guztiz frantsesduanean txertatzeko, Frantzia bera eskuin muturraren besoetan ez uzteko argudiopean. Euskaldunon kaltea ez dator hutsean eskuin muturretik, baina, Frantziatik bertatik dator, edo Espainiatik. Hori ikasten ez dugun bitartean ez dugu Euskal Herri librerik izango.

Euskal politikagintzaren muina Euskal Herrian bertan kokatu behar dugu, ezinbestean. Bai bertoko erakunde autonomiko edo departamentukoetan, haie-

tan egoeraren diagnosi zehatzak egin, aliantza egokiak garatu eta ekinbide zuzenak bultzatu daitezkeelako. Bai eta herri elkarte, sindikatu, enpresa eta kultur erakundeetan ere, euskal nazioagintza benetako auzolan kolektibo bihurtzeko.

Auzolan politiko horren eremua argitu behar dugu, hala ere, hizkuntza irizpideetatik hasi eta kokapen politikotara helduta. Eskizofrenia punturaino eraman gaituzte herritarrak ordezkari politikoen azkenaldiko jokabideek. Ezin jarraituzkoa gertatu zen, esate baterako, Gasteizko Legebiltzarrean lehendakaria eta gobernu berria hautatzeko saio luzea. Hara non hasi zitzaizkigun bi hautagai nagusiak euskaratik gaztelerara jauzi egiten minutuero, etengabe, bakoitzaren ordu eta erdiko hitzartze luzean! Eromen linguistikoa, entsalada ozipindua. Noiz erabaki behar dugu Euskal Herriko hizkuntza euskara dela, eta ez dakienak, ikasten ez duen bitartean, eskuragarri dituela berehalako itzulpen zerbitzuak?

Elkarguneak identifikatzea eskatzen du, bere aldetik, Euskal Herria Bilduk, ondoren horietan elkarlana garatzeko moduan. Metodologia egokia izan daiteke, zalantzarik gabe, interes alderdikoekin talka egiten ez badu. Baina zehaztapena behar da, ezeren aurretik: Euskal Herriaren nazio aitortza. Gune historikoa, gune geografikoa, gune kulturala badena, behingoz, gune politiko nagusi bihurtu dadin. ●